


IKASLE ERDUA

"AUIT"

Traupena: "40 ordu"

Taldeak: 3 edo 4 laguneko 4 talde



Hasiera data: **2024/01/10**

Amaiera data: **2024/02/02**

Antolaketa: **Modulu bakarrekoa**

Erronka

- **EGIN BEHARREKOAK:**

Erronka honetan abiadura kaxa baten desarmatzearekin lan egingo dugu. Kaxa desarmatzearekin bat, helburu ezberdin batzuk finkatuko ditugu, hauen elementuak ezagutu, matxura posibleak identifikatu eta abiadura kaxa baten zergatia eta funtzionamendua ulertuko ditugu.

Helburuak/ Ikasketa emaitzak

Mod.7/AUIT/0292 INDARREN TRANSMISIO SISTEMAK ETA ERRODAJE TRENAK

IE7.2 Errodaje-trena eta indarren transmisioa osatzen dituzten sistemen eraginkortasuna interpretatzen du, eta horien funtzionaltasuna mantentze-prozesuekin lotzen du.

IE7.3 Transmisio-sistemetan eta errodaje-trenetan matxurak diagnostikatzen ditu. Horretarako, funtzionamendu-parametroen balioak edo argibideak interpretatzen ditu.

IE7.4 Konponketa-prozedurak zehazten ditu, aurkitutako matxuren kausak eta efektuak aztertu ondoren.

IE7.6 Lozagien, bihurgailuen, aldagailuen, diferentzialen eta transmisio-elementuen mantentze lanak egin ditu, eta, horretarako, zehaztutako teknikak interpretatu ditu.

ZEHARKAKO GAITASUNAK

- Lanerako jarrera.

1. Egin beharreko lanak

- **1.go helburua:** Abiadura kaxa baten desarmatzea eta montatzea. **IE7.4 / IE7.6**
- **2.en helburua:** Abiadura kaxa bat osatzen duten elementuak identifikatu eta eta matxura posibleak identifikatu. **IE 7.3**
- **3.en helburua:** Abiadura kaxa batekin erlazionatutako kalkulu ezberdinak egitea. **IE7.2**

NOLA LORTU HELBURUAK

1.GO HELBURUA. KAXA DESMUNTATU ETA MUNTATZEA.

- *Tailerrean lanean hasi baino lehenago, dokumentatu desarmatzeko pausu guztiekin, desmuntatzeko orduan arazoak ekiditzeko.*
- *Tailerreko apaletan dagoen abiadura kaxa bat irakasleak emango dizue. (berdin da longitudinala edo transbersala den).*
- *Tailerreko mahai bat aukeratu (Automozio gunekoa) taldeka lan egiteko. Abiadura kaxak bertan utziko dira erronka bukatu arte.*
- *Kontu handiarekin kaxa desarmatzen hasi. Ondo antolatu desmuntaturiko dena, kaxetan gorde eta markatu.*
- *Desarmatu pinoneria dena bi edo hiru ardatzak solte eta biluzik egon arte.*
- *Kaxa montatu erronka bukatzen denan, bukareran martxa denak ondo sartu behar dira eta ondo biratu behar du.*
- *Egiten dituzuen pausu guztiak apuntatu eta dokumentatu, bukaeran txosten bat entregatu beharko da dokumentazio honekin:*
 - *Lana burutzeko emandako pausuak.*
 - *Erabilitako erraminta eta utilen deskripzioa eta zertarako balion duten.*

2.EN HELBURUA. TXOSTENA EGIN ETA AURKEZPENA.

ESKUZKO KAXAREN ATALAK ETA HAUEN FUNTZIONAMENDUA.

- *Diferentziala eta grupo konikoa:*

*Zer da?
Zertarako erabiltzen da?
Nola egiten du lan?
Konprobaketak eta mantenua.*

- *Errodamentu ezberdinak:*

*Zer dira?
Zer funtzio betetzen dute?
Mota ezberdinak.*

- *Sinkronizatzailerak:*

*Atal ezberdinak identifikatu
Zer funtzio betetzen dute.
Konprobaketak eta mantenua.*

- *Ardatz primarioa eta sekundarioa eta hauen pinoiak:*

*Identifikatu bakoitza.
Konprobaketak eta mantenua.*

- *Urkilak eta hauen elementuak:*

*Abiaduraren katigatze mekanismoak.
Bi abiadura sartzea galarazten duten gailuak.*

3.EN HELBURUA. KALKULOAK

- *Talde bakoitzaren autoaren abiadura grafika bat egin. Bertan, motor jakin baterako, talde bakoitzeko abiadura kaxaren aprobetxamendu optimoa erreflejatuko duen grafika egingo da. **Honetarako:***

- *Kutxako (talde bakoitzeko) transmisio erlazio guztiak kalkulatu (haginak kontatuz).*

ENTREGATU BEHARREKOA

Txosten bat entregatuko da talde bakoitzeko. Bertan helburu bakoitzean eskaturiko lanak jarriko dira.

Txosten honek hurrengo egitura eta forma edukiko ditu:

- Azala
- Taldea
- Aurkibidea eta orri zenbatuak
- Txukun eta garbi egotea, marginak eta distantziak errespetatuz
- Arial 12 letra motan egina

2. Ebaluazio irizpideak

<i>Taula honetako %ak Tknikak proposaturikoak dira. Erronkaren arabera aldatu daitezkeenak.</i>				Irakasleak	Ikasleak bere buruari	Ikasleak ikaskideei	Kanpo ebaluazioa
				%	%	%	*
Gaitasun teknikoak	60%			100%			
Zeharkako gaitasunak	40%	Lan jarrera	30%	70%	10%	20%	
		Autonomia					
		Komunikazioa					
		Lan taldea	10%				

Hiru gauza hauek ebaluatuko dira:

- Txostenean entregaturiko dokumentazioa. Eginiko pausu guztiak ondo zehaztuta dauden, kalkuluak ondo eginda eta eskatutako gauza denak eginak dauden.
- Behin abiadura kaxa montatu ostean, funtzionamendu ona daukala ebaluatuko da.
- Azalpenean emandako argibide eta informazio teknikoa.

Bukaeran froga bat egin ahal izango da ikasitako materia finkatu eta ebaluatzeko.

3. Baliabideak

- Eskolako baliabide digitalak (internetara konexioa, ordenagailuak, Autodata, HGS data, etab...)
- Automozio guneko erreminta orokorra.
- Automozio biltegiko erreminta espezifikoak.

4. Denbora antolaketa

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
8:00 – 9:00	AUIT	AUIT	AUIT		
9:00 – 10:00		AUIT	AUIT		
10:00 – 11:00		AUIT	AUIT		
ATSEDEN.					
11:30 – 12:30		AUIT	AUIT		
12:30 – 13:30			AUIT		
13:30 – 14:30			AUIT		